DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ura eta SaneamenduaAgua y Saneamiento
Urdaneta, 13 | Tel. 943481050 | www.donostia.eus

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIAKO UR KONTAGAILUEN EGOERA AZTERTZEKO SISTEMA BAT EZARRI ETA ERABILTZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIA EGINDA ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUENA.

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA: LEHIAKETAREN XEDEA
2. KAPITULUA: EGIN BEHAR DIREN LANAK
3. KAPITULUA: KONTRATUARI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA BALIABIDEAK
4. KAPITULUA: INSTALAZIOAK
5. KAPITULUA: LANEN PLANGINTZA
6. KAPITULUA: KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA
7. KAPITULUA: KONTRATUAREN ALDIA
8. KAPITULUA: KONTRATUKO PREZIOAK

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: AURREKONTUA

1. KAPITULUA. - LEHIAKETAREN XEDEA

Lehiaketa honen xedea da zerbitzu bat hartzea, sistema bat jarri eta erabiltzeko, ur kontagailuen egoera aztertu eta haiek aldatzeko lehentasunak adieraziko dituena gero. Era berean, Donostiako Udalaren ur sareko sektoreen balantze hidrikoa kalkulatzeko egin behar diren eragiketak ere egin beharko ditu sistema horrek.

2. KAPITULUA. - EGIN BEHAR DIREN LANAK

Irtenbide informatiko bat ekarri, jarri eta kasu eginda edukitzea, lan hauek denak egingo dituena:
Eskainitako irtenbideak kontagailuek izaten dituzten ur komertzialen galerak detektatu behar ditu, eta hirian diren kontagailuak aldatzeko lehentasunak proposatu, diren baliabideak optimizatzeko eta kontsumitutako uraren neurketa eta benetan kontsumitutakoa ahalik eta gertuen izateko. Horretarako, bi zati dituen txosten bat egin beharko du: batetik, kontagailuen parkeko kontagailuen egoerari buruzko informazio eguneratua; eta, bestetik, aldaketaren lehentasunei buruzko informazio eguneratua, kontagailuak aldatu ahala, eta azterketa tekniko eta ekonomiko bat, Udalak zehaztutako kontagailu parkea aldatzeko edo berritzeko planena.

Halaber, hiriko ur-sareko sektoreen balantze hidrikoa egunero-egunero eguneratu ere egin behar du konponbide horrek, kontagailuen ordukako teleirakurketa jarrita dagoen sektoreetan. Irakurketa klase hori jarri gabe dagoen sektoreetan, kontagailuak hiru hilean behin begiratuta egiten diren irakurketen arabera atera behar da balantze hidrikoa.
Lan horiek guztiak egiteko, Udalaren ur-sareko datuak (diametroak, emariak eta kontsumoak) eta hiriko kontagailuen parkekoak (diametroa, marka eta modeloa, antzinatasuna, kontsumoak...) erabiliko ditu eskainitako konponbide informatiko horrek.

3. KAPITULUA. - KONTRATUARI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA BALIABIDEAK

3.1. – LANGILEAK

Kontratua hartzen duen enpresak baldintza agiri honetan zehaztutako lan guztiak egiteko behar diren langileak izan behar ditu beti, behar adina langile eta lanak egiteko moduko langileak, izan ere. Langile horiek esperientzia izan behar dute lehen adierazitako lanak egiten, eta, gutxien-gutxienez, hauek izan behar dira:

- Zerbitzuburu bat, goi mailako tituluduna, uraren kudeaketan esperientzia duena, kontratuak irauten duen bitartean urtean 30 orduan, behintzat, hala jardungo duena.
- Teknikari bat, goi mailako tituluduna, uraren kudeaketan esperientzia duena, kontratuak irauten duen bitartean urtean 150 orduan, behintzat, hala jardungo duena.

Langile proposamen hori beste langile batzuekin osatu ere egin daiteke: kontratistak baldintza agirian deskribatutako lanak egiteko beharrezkotzat jotzen dituenekin.

3.2.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak software-konponbide bat proposatu behar du bigarren kapituluan eskatutako lanak egiteko. Informazio guztia web formatuan aurkeztu behar da, sarbide-gako mugarik gabe Udalak baimena emateko eskatzen duen langile GUZTIENTZAT.
Aurkeztutako konponbide informatikoa aktibo eta egoera onean eduki behar du. Software-konponbide horretan, kontagailu bakoitzaren egoera ikusteko modua izan behar da, eta baita egoera horrekin zerikusia izan dezaketen beste adierazle batzuk ikusteko ere. Adierazle hauek, gutxienez: aldatu beharra, geldirik izateko probabilitatea, dimentsionamendu egokia, azpikontaketa, jarioak (teleirakurketa duten kontagailuetarako) eta kontsumo-erregulartasuna.
Horrez gainera, geldi egon daitezkeen, jarioak dituzten edo tamaina desegokia duten kontagailu multzoak ikusteko modua ere izan behar da. Kontagailu parkearen egoera egunero-egunero eguneratu behar da.

Bestalde, bi zati dituen txosten bat ere aurkeztu behar da. Txostenaren lehen zatian, kontagailu parkearen egoera zehatz-mehatz azaldu behar da, aurreko paragrafoan adierazitako adierazle horiek denak jarrita (egoera, aldatu beharra, geldirik egoteko probabilitatea...). Informazio hori, kontadoreak egoeraren arabera multzoka sailkatuta begiratzeko moduan nahiz banaka begiratzeko moduan aurkeztu behar da.

Halaber, txosten horren bigarren zatian, zerrenda bat aurkeztu behar da, kontagailuak aldatzeko lehentasunak eta aurren-aurrena aldatu beharreko kontagailuak adierazita izango dituena. Lehen aipatutako adierazle horiez gainera, kontagailuaren ezaugarriak ere izan behar dituzte kontuan lehentasun horiek; diametroa, marka eta modeloa, kontsumoak eta uraren ordenantza fiskala, konparazio baterako. Atal horretan, azterketa tekniko eta ekonomiko bat ere sartu behar da, Udalak kontagailu parkea aldatzeko edo berritzeko egindako planena.

Txosten hori gutxienez urtean bitan (6 hilean behin) eta gehienez 12tan (hilean 1) eskatuko du Udalaren Ur Zerbitzuak.

Emandako adierazle horiek, hirian diren kontagailuak aldatu eta teleirakurketa egiteko moduko sistemetara pasatzeko ere balio izan behar dute.
Halaber, hiriko ur-sareko sektoreen balantze hidrikoa egunero-egunero eguneratu ere egin behar du konponbide informatiko horrek, kontagailuen ordukako teleirakurketa jarrita dagoen sektoreetan. Irakurketa klase hori jarri gabe dagoen sektoreetan, kontagailuak hiru hilean behin begiratuta egiten diren irakurketen arabera atera behar da balantze hidrikoa.

Emandako txosten guztiak Donostiako Udalarenak izango dira. Donostiako Udalak erabakiko du txosten horiek nola eta zein formatutan eman beharko diren.

Datuen Backup bat ere egin behar da. Harako sarbidea Udalaren Ur eta Saneamendu Zerbitzuak baimendutako udal erakunde guztiek izango dute.

Aurkeztutako irtenbide informatikoak datu bolumen handiak eraginkortasunez aztertu eta erabiltzaileari egoki aurkezteko prestatuta izan behar du. Era berean, adimen artifizialeko sistema batzuk ere izan behar ditu konponbide informatiko horrek —ur kontagailuen portaeraren inguruko sistemak—, emandako informazioan oinarritu eta portaera batzuk sortzeko gai izango direnak.

3.3.- ESLEIPENDUNAK SEGURTASUN ETA OSASUN ALDETIK IZANGO DITUEN BETEBEHARRAK.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak agindutakoa betetzea alde horretatik eta laneko segurtasun eta higiene, babes, prestakuntza eta abarri dagokienez ere, eta baita arlo horretan indarrean den gainerako legeria osoa ere.

3.4.- ESLEIPENDUNAK DATUAK BABESTE ALDETIK IZANGO DITUEN BETEBEHARRAK.

Datuak babesteaz indarrean den araudia bete behar du enpresak. Emandako informazio guztia isilpekoa izango da, eta, ez informazio hori, ez eta egindako txostenak ere, ez dago beste inori uzterik. Datu horiek ikerketetarako, aplikazioak garatzeko edo beste helburu batzuetarako bereizita erabili ahal izateko, Donostiako Udalaren baimena izan behar da.

Kontratua bukatutakoan, berriz, Udalari eman behar dizkio enpresa esleipendunak kontratu honi buruzko datu guztiak, eta, ondoren, suntsitu egin behar ditu haiek denak.

4. KAPITULUA. - INSTALAZIOAK

Esleipendunak behar bezala hornitutako bulego batzuk izan behar ditu aurreikusitako lanak egiteko.

Instalazio finko horiek kontratuak irauten duten bitartean erabiltzeagatik sortzen diren gastuak (ura, argia, telefonoa, gasa eta abar) enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Azpiegiturari dagokionez, eskainitako sistemak zera izan behar du:

- FTP zerbitzari seguru bat, gutxienez FTP-S eta HTTP-S protokoloak dituena, emandako datuak bidaltzeko.
- Biltegiratze sistema erredundatu bat, segurua, erabilgarritasun handikoa eta enkriptatzeko ahalmena duena, emandako datuak gordetzeko.
- Biltegiratze sistema seguru bat (biltegiratutako datuak eta komunikazioak enkriptatzeko gaitasuna duena), segurtasun kopiak egiteko sistema bat duena, aplikazioetatik ikusten den informazioa gordetzeko.
- Zerbitzuak egiteko erabili behar den azpiegitura zeregin hori egiteko jarrita izango den sare egitura seguru batean egiteko izan behar diren mekanismoak.
- Azpiegiturak erabiltzen dituen zerbitzariak mantentzeko eta eguneratzeko behar diren mekanismoak.
- Azpiegitura monitorizatzeko zerbitzuak.
- Azpiegituraren eragiketarekin zerikusia duten gertaerak erregistratzeko zerbitzuak.
- Mehatxuei eta azpiegiturara baimenik gabe sartzeko ahaleginei antz emateko zerbitzuak.
- Suebaki zerbitzua, webeko aplikazioak babesteko.
- Zerbitzuetara sartzeko aplikazioak web aplikazioak izan behar dira, HTTP-S komunikabide segurua erabiltzen dutenak.
- Aplikazioetarako sartzeko bideak faktore anitzeko (MFA) egiaztatze mekanismoak izan behar ditu.

Azpiegituraren ostatuak datu zentro erredundatuak dituen hornitzaile baten hodeian egon behar du, erabilgarritasun maila handia bermatzeko moduko batean. Horrezaz gainera, beste segurtasun estandar hauek ere bete behar ditu:

- ISO 9001, 27001, 27017, 27018
- Segurtasunerako Eskema Nazionala (ENS) – Goi mailako ziurtagiria.

5. KAPITULUA. - - LANEN PLANGINTZA

Donostiako Udalak hiriko ur-sarearen datuak jarriko ditu enpresa adjudikaziodunaren esku, kontagailuenak eta emari neurgailuen datuak, zehazki. Informazio horretatik abiatuta, aurkeztutako softwarea elikatu behar du enpresa esleipendunak, eta zerbitzua ematen hasi eta bi hilabete pasatutakoan, aurreneko txostena aurkeztu.

6. KAPITULUA. - KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratistaren erantzukizuna izango da daturen bat haren instalazio eta ekipoetatik lapurtzea edo kanpora pasatzea. Horrenbestez, bada, daturik ez lapurtzeko edo kanpora ez pasatzeko jarri behar diren baliabide guztiak jarri behar ditu.

7. KAPITULUA. - KONTRATUAREN ALDIA

Baldintza agiri honek araututako kontratuaren iraupena HIRU (3) URTE izango da, eta urtebeteko BI luzapen izango ditu.

8. KAPITULUA. - KONTRATUAREN PREZIOAK

Baldintza agiri honen eranskinean adierazi ditugu eskaintza egin nahi duen enpresak zer unitate erabili behar dituen eskaintza egiteko.

8.1.- ORDAINKETA ETA AURREKONTUA

- Lizitazio ondorioetarako, aplikazioaren lizentzia izateko eta eusteko urteko kostua 15.000 € izango da, gehienez ere, BEZarena sartu gabe. Atal horri dagokion zenbatekoa hamabitan zatituko da, hilabeteko bat, eta ordaindu ere hilero ordainduko da.

- Kontagailu parkearen egoeraren jarraipenari buruzko txostena —baldintza agirian aurreikusitakoaren arabera zehaztua— eta jarraipeneko txosten teknikoan jasotzen ez diren aplikazioko kontsultak egiteko laguntza teknikoa hileroko ziurtagiriaren bidez ordainduko dira, I.go eranskineko taulako prezioen arabera.

Kontzeptu horretan, gehienez ere **24.201,21 €** ordainduko da urtean, BEZarena ere sartuta, baina Udalak ez du ezeren konpromisorik izango kopuru horretara derrigor iritsi behar izateko.

8.2.- KONTRATUA HARTZEN DUENAREN KONTURA IZANGO DIREN GASTUAK

Kontratua hartzen duen enpresaren eta ez besteren kontura izango dira gastu hauek:

- Zerbitzuak egiteko behar diren baliabide guztiak erostea edo alokatzea.
- Instalazio finkoak hartzeak eta haiei eusteak dakartzaten gastu guztiak, erosita izan edo errentan hartuta izan haiek.
- Kontratatutako zerbitzuak emateko behar diren langile guztien soldatak, aseguruak eta gainerako gastuak ordaintzea, Araudi Ofizialaren arabera tokatzen direnak.
- Zerbitzuak emateari eta haiek egiteko egin behar diren agiriak tramitatzeari dagozkien gastu guztiak, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena ere sartuta (BEZ).

Donostia, 2019ko maiatza
Uren Ustiapen eta Saneamendu Zerbitzuko burua

Izpta.: Andres Martinez

I. ERANSKINA:
AURREKONTUA

Kontzeptua	Unitateak	Zenbatekoa	Urteko zenbatekoa
Kontagailu parkearen egoeraren segimendu txostena, baldintza agirian aurreikusitakoaren arabera zehaztua	12	1003 €	12.036 €
Segimendu txosten ereduzkoan jaso gabeko aplikazioaren kontsultak egiteko laguntza teknikoa	100	79,65 €	7.965 €
Urtekoa, guztira (BEZik gabe)			20.001 €
BEZa (% 21).			4.200,21 €
Urtekoa, guztira, BEZarena ere sartuta			24.201,21 €